

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Onestea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2019ko errolda

Alkatearen 2019ko otsailaren 18ko Dekretuaren bidez, Okondon 2019an trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen errolda onetsi zen.

Errolda jendaurrean egongo da 15 eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek aukera izan dezaten errolda aztertzeko eta, hala badagokio, egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Interesdunek espedientearen udal bulegoetan (Zudubiarte kalea, 2) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldaren onarpenaren eta bertan jasotako likidazioen aurka berraztertzearen errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio udalbatzari, hilabeteko epean, jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera. Errolda jendaurrean dagoen artean erreklamazioak aurkeztu ez bada, behin betiko onartutzat joko da eta ordaintzeko epea irekiko da. Epe hori bi hilabetekoa izango da, 2019ko apirilaren 1etik maiatzaren 31ra arte, hain zuzen ere.

Borondatezko aldia ordaintzeko epea amaitu eta ordaindu ez diren kuotentzat betearazteko aldia hasiko da, berez eta besterik gabe, eta berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatuko dira, 6/2005 Foru Arau Orokorrak, zergenak, 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Ordainketak bankuetan helbideratuta dituzten zergapekoek ez dute inolako izapiderik egin behar, eta bankuak maiatzaren 6an egingo du zordunketa. Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2019ko otsailaren 18a

Alkatea

SERGIO TATO EGUREN